



Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 17koa. Horren bidez, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari gomendatzen zaio deontologia arau-haustek salatzen dituzten pertsonen jardueretako agirien berri ematea eta arau-hauste horiek artxibatzearen arrazoiak beti ematea, bai diziplina espedientea, bai informazio eginbideak amaitutzat jotzen direnean.

Aurrekariak

1. Herritar batek Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren aurrean elkargokide baten aurkako salaketa egin zuen, eta horren ondorioz aurreko informazio bat ireki zen bere Deontologiazko Batzerdean.

Aipatutako Korporazioak idazki bat bidali zion salatzailari eta horren bidez jakinarazi zion 2009ko martxoaren 20an Gobernu Batzarrak agindu zuela ez zela egokia salatutako abokatuaren aurka diziplina prozedura hastea. Horren arrazoia zen, *Abokatuen Elkargoa arautzen duen Estatutuko 23. eta 26. artikuluei jarraiki, abokatuak bideratu behar duela, komenigarria deritzon moduan, bezeroaren eskubidea defendatzeko estrategia eta ez diola men egin behar bezeroak adierazten dionari.*

Salatzaileak orduan Arartekoaren aurrean egin zuen kexa, salatzaileak Elkargoari jakinarazi zizkion zenbait gertaera zehatz aztertzea ukatzeko arrazoirik eman gabe salaketa artxibatu zelako Elkargoaren jarduerak korporatibismo falta zuela irizten baitzuen, salatzailearenganako jarrerari buruz edo bere defentsaren norabide orokorrari buruz salatutako abokatuarekin zituen desadostasunak alde batera utzita. Salatzaileak zehazki aipatu zuen abokatuak prozesuko une egokian bere esku zeuden lekukoak edo irizpenak ez erabili izana eta gainera, egin ez zituen jarduera batzuk kobratu izana. Adierazi du, horrez gain, ez ziotela jakinarazi gertaera horiek aztertzeke egin ziren aurretiazko jarduerak nolakoak izan ziren eta ez zeukan abokatuaren idazkiko edukiaren berri. Elkargoak adierazi zion abokatuaren idazkia hartu zuela kontuan kasua artxibatzea erabakitzeke, eta horregatik, salatzaileari iruditu zitzaion erabaki horrek arrazoi nahikorik ez zuela.

Bestalde, adierazi zigun idazki batzuen bidez artxibatzearekiko zuen desadostasuna erakutsi zuela eta salatutako abokatuak azaldutako alegazioen kopia eskatu zuela. Horren aurrean, korporazioak erantzun zion horiek ezin





zizkiola eman, elkargoko aurretiatzko informazioa denez eta ez duenez zerikusirik administrazio prozedura batekin.

2. Arartekoa Elkargoari zuzendu zitzaion eta azaldutakoaren inguruko informazioa eskatu zion. Halaber, aipatu zion, gertakariak adierazi bezala izan baziren, esan zitekeela, kasu horretan, eginbideak artxibatu zirela jakinarazterakoan, salatzaileari ez zitzaioa azaldu horretarako arrazoia. Elkargoak kasuaren espediente osoa bidaliz erantzun zuen. Bertan adierazten da salatutako abokatuak bere jarduera azaltzeko aurkeztu zituen alegazioak kontuan hartu ondoren, Korporazioak erabaki zuela ez zegoela aztertu beharreko jardunik, eta hortaz, ez zela diziiplina espedientea ireki behar.

Alegazio horiek ikusirik, Arartekoa erreklamatzailerari jakinarazi zion Elkargoak hori horrela ulertzeko zituen arrazoiak zein ziren. Horren bidez artxibatze arrazoiak ezagutzeko eskubidea bete nahi izan genuen, baina ez genuen hartutako erabakiaren edukia baloratu. Legeak hala ezartzen du eta Korporazio profesionali soilik ematen die bere kideen jarduerak kode deontologikoarekin bat etortzen ote diren erabakitzeko ahalmena, hortaz gure erakundeak ez du bigarren instantzia eratuko Gobernu Batzarrak horren gainean hartutako erabakien kontra egin dadin.

3. Hala ere, erakunde honek esku har dezake eta esku hartu behar du salaketaren aurrean Elkargoak erabakitakoaren berri jakiteko erreklamatzailerak duen eskubideari dagokionez, eta horrez gain, erabaki hori hartzeko kontuan izan diren arrazoiei dagokienez, zehazki planteatutako gai zehatzei buruzko ebazpenen bidez.

Elkargoari horixe adierazi genion, eta erantzun gisa bidali zigun espedientearen arabera, horri buruz irizten du betebehar hori soilik diziiplina espedientea hasten den kasuei baino ez dagokiola. Hala ere, salaketaren ondorioz informazio eginbideak soilik hasten direnean, beren ustez ez da beharrezkoa salatzaileari artxibatze erabakia hartzeko oinarritzat hartu diren salatutakoaren alegazioen berri ematea.

4. Hori ikusita, gure esku-hartzeari amaiera ematea erabaki dugu kontu honi dagokionez; hala, gomendioa barneratzen duen ebazpen hau eman dugu, honako gogoeta hauetan oinarrituta:





Gogoetak

1. Gure kontrol ahalmenez baliatuta, ezin dugu korporazio horrek, arau deontologikoen argitan, elkargokidearen jokabidea dela-eta egin izan dezakeen balorazioa aztertu. Batzarrak elkargokideak bere garaian eman zizkion azalpenak sinesgarritzat jotzea noraino den arrazoigarria kanpo geratzen da, beraz, gure ahalmenetik. Gure esku hartzeak, ordea, bestelako helburua du:

Elkargoaren Deontologia Batzordeak egindako jarduerak informazio eginbideak soilik izateak artxibatzeko arrazoiek ebazpen honetako lehen aurrekarietan agertzen diren termino generikoak hartu izan ditzatela justifikatzen ote duen, erreklamatzailerak bere lehengo abokatuak salaketako puntu zehatzei erantzuteko eman zituen alegazioen berri izateko aukerarik izan gabe eta horiek izanik, espedientearen arabera, Elkargoak artxibatzeko erabaki hartu izanaren oinarria.

Erakunde honek gaiari heltzeko aukera izan du aurreko bi espedientetan eta horiei buruzko gomendio bana egin ditu: Lehenengoak salatzaileak bere kexa dela-eta ireki den diziiplina espedientearen agirien berri, oro har, izateko duen eskubideari, egiten dio erreferentzia; bigarrenak, berriz, salaketak artxibatzea arrazoitzeko betebeharrari, bai hasitako jarduerak diziiplina espedientea eragin badu, bai aurretiazko informazioa baino ez bada.

2. Arartekoak 2005eko urtarrilaren 21ean Legekarien Euskal Kontseiluari bidali zion Gomendioak alderdi horietako lehenengoa hizpide zuen, hau da, salatzaileei diziiplina espedientearen bidez hori osatzen duten agirien berri ematea funtzionamenduko arau orokor gisa har zedin; eta gomendioa bere garaian onartua izan zen.
3. Artxibatzearen arrazoiketa salatutakoak aurkeztutako alegazioetan oinarritzen denez, aurrekarietan azaldu bezala, alegazioak salatzaileari helarazteak arrazoiketaren berri izateko eskubidea sendotzen du, eta salatzaileak eskubide hori dauka, artxibatutako jarduerak espediente batekoak izan, edo informazio eginbideak izan. Horixe azaldu zuen erakunde honek Bizkaiko Abokatuen Elkargoari bidalitako 2007ko abenduaren 11ko Gomendioan; eta Elkargo horrek onartu zuen. Aipatutako ebazpenak honakoa dio:

"1. Jakina denez, elkargo profesionalak, zuzenbide publikoko korporazio diren heinean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen baitan daude, horren 2.





*artikuluak ezartzen duenaren arabera. Hala, lege horretako 89.3 artikuluekin bat etorritik, ebazpenek erabakia adierazi behar dute; erabaki horrek **arrazoitua** izan behar du, "egitateen eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra ere eginez", 54. artikuluan aipatutako kasuetan. Halaber, lege horren beraren 58.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, "egintza ematen den egunetik hamar egun izango dira jakinarazpena egiteko. Jakinarazpenean erabakiaren testu osoa jaso behar da, eta administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez, zein errekurtsorik jar daitezkeen, zein organori aurkez dakizkiokeen eta zein epetan egin beharko litzatekeen adierazi behar da".*

2. Gure helburua pertsonen eskubideak ahalik eta gehien sustatzea denez, uste dugu arrazoitzea, ahalmena eta arbitrariotasuna bereizten dituen faktore izanik, administrazio on ororen elementu nagusia dela. 30/1992 Legearen 3.5 artikuluan jasota dauden gardentasun eta partaidetza printzipioen funtsezko osagaia da eta horren eragin eremua lege horren beraren 3.2 artikulua aipatzen duen biztanleen zerbitzura egotearen printzipioan oinarrituta aztertu behar da. Ikuspegi horretatik, ez dago inolako arrazoirik pentsatzeko, kexa bat artxibatu egin denean, kexagileak kexa artxibatzeke egon diren arrazoen berri izateko duen eskubidea indargabetu egiten dela Bazkunak diziplina espedienterik ez zabaltzea erabaki duelako.

Administrazio bidean egintza behin betikoa den ala ez den eta horren aurka errekurtsorik jarri ote daitezkeen jakinarazteari dagokionez, informazio hori ez ematea ere ezin justifika daiteke salaketak, diziplina-espedienteari hasiera eman ordez, informazio eginbideak eragin dituela esanda. Gorago aipatutako printzipioen argitan, ondorio hauetarako garrantzitsuena da jakinarazitako 4 erabakiak Bazkuneko gobernu organoaren ebazpena ezagutarazten duela; horren bidez, elkargokide baten lanbide jarduerari buruzko arazoa ebazten da eta, hala, irregulartasunik egon ez dela erabakitzen da.

Ilido horretatik, Diziplina Prozedurari buruzko Erregelamenduak informazio eginbideetatik haratago ez joateko aukera aipatzen duenean, premia nabari bati erantzuten dio; alegia, bereizi egin behar dira, batetik, eskubideak bermatzen dituen bideratze prozesu zehatza behar duten kexak eta, bestetik, zertxobait ikertuta, oinarririk ez dutela edo hutsegite arina izan dela agerian uzten duten kexak. Baina kasu batean edo bestean gauden erabakitzeke, datuak eta informazioak aztertu behar dira eta horiek, nolana ere, arrazoituta egon behar dute, hala izan ezean, ez bailegoke modurik erabakiak arbitrariotasunaren arrazoizkotasun eta interdikzio kanona errespetatzen ote duen jakiteko. Azken finean, honako ondorio zentzugabe



hau atera ahal izango genuke: nahikoa izango litzatekeela espedienterik ez zabaltzea kexak ebazterakoan gardentasun printzipioa saihestu ahal izateko. Horrek aipatu erregelamenduko 7.4 artikuluko azken intzisoan egiten den aurreikuspena hutsalduko luke, nekez jar baitaiteke errekurtsorik arrazoitu ez den erabakiaren aurka.

Horregatik guztiagatik, uste dugu, informazio eginbideak artxibatzen direneko kasuetan ere beharrezkoa dela erabakiak arrazoitzea eta bidezko errekurtsioak jakinaraztea, 30/1992 Legearen 54.1, 58.2 eta 89.3 artikuluan ezarri bezala, Diziplina Prozedurari buruzko Erregelamenduak hori beren beregi aurreikusten duen ala ez aintzat hartu gabe."

4. Espediente hau eragin duen kasuari orain arte azaldutako irizpide orokorrak aplikatuz gero, ondorioztatu behar dugu Elkargoak ez zuela modu egokian jokatu erreklamatzailerari abokatuaren alegazioak, bere salaketa artxibatzeke oinarritzat erabilitakoak, eskuratzea ukatu zionean, eta jakinarazi zitzaion artxibatzeke ebazpena ez zegoela behar bezala arrazoitua.

Izan ere, ondorio horietarako, ez da nahikoa irizpide orokor bat soilik azaltzea, aurrekarietako lehenengo puntuan azaldutako terminoetan aipatzen den akordioak egiten duen bezala. Alde horretatik, ezinbestekoa zen arrazoitzea Batzarrak zergatik erabaki zuen salaketan agertzen ziren puntu zehatzak aipatutako irizpidea aplikatzeko premisen menpe zeudela, izan ere, akordioa jakinarazteak orduan bakarrik ezagutaraziko zuen segida logikoa, hau da, Elkargoaren ustez kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta artxibatzeke erabakia hartzera eramaten duena. Erabakia, hain zuzen ere, abokatuaren alegazioen arrazoiketa ildo horretan oinarritzen da. Hortaz, arazoa ez da erabakiak zentzuzko arrazoiketa falta izana, baizik eta hori barne hartzen duen akordioan arrazoiketa ez jasotzea eta aldi berean salatzaileari alegazio horien edukia jakinarazteko egin zuen eskaera ukatu izana; Elkargoak salatzaileari arrazoiketa horren berri izatea ukatu dio.

Erakunde honen esku-hartzeak informazio falta hori konpondu ahal izatea alde batera utzita, gure ustez beharrezkoa da Elkargoak, hemendik aurrera, gai honi dagokionez bere jarduera egokitzea, defendatzen aritu garen irizpideei jarraiki.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:



12/2009 GOMENDIOA, uztailaren 17koa, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari egina

Aurrerantzean, deontologia arloko edozein salaketa artxibatzeko hartzen den erabaki oro behar bezala arrazoituta egon dadila salaketan planteatutako gai zehatz orori dagokionez, eta horren aurka jar litezkeen errekurtsoen berri eman dezala, bai informazio eginbideei amaiera ematen zaienean, bai salaketak diziiplina espedientea zabaltzea ekartzen duenean.

Legekarien Euskal Kontseiluak onartutako Arartekoaren 1/2005 Gomendioari jarraiki, administrazio prozedura baten parte izan direnei –diziiplina espediente baten salatzaileei ere– espedientea osatzen duten agiri guztien berri ematea funtzionamenduko arau orokor gisa har dezala.

